



FA/OF	405	2019
-------	-----	------

Foru diputatuak ondorengo agindua eman du gaur:

La diputada foral, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

"Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 aldirako Kudeaketa Plan Estrategikoak bere helburuen artean jasotzen du Gipuzkoaren gizarte baliabideen sare publikoaren eskaintza egokitzea gizarte beharren bilakaera kontuan hartuz eta horrek lurraldean oreka izatea lortzea.

"El Plan Estratégico de Gestión 2015-2019 de la Diputación Foral de Gipuzkoa recoge entre sus objetivos el adecuar la oferta de la red pública de recursos sociales de Gipuzkoa, dada la evolución de las necesidades sociales y lograr su equilibrio territorial.

Testuinguru honetan, Gizarte Politikako Departamentuak antzeman du Eibarko Legarre kaleko 8. zenbakian kokatutako Egogain Zentroko gizarte baliabideak areagotzeko beharra.

En este contexto, el Departamento de Políticas Sociales ha detectado la necesidad de incrementar los recursos sociales en el Centro Egogain, ubicado en la calle Legarre 8 de Eibar.

Gaur egun, bosgarren solairuan dagoen adineko pertsonen zuzendutako arreta integraleko modulua solairu honen mendebaldeko partean kokatuta dago eta 20 egoitza plaza ditu; hegoaldeko partean medikuaren bulegoak, kontrola, RAI eta botika-kutxa daude; ekialdeko partean biltegiak eta autonomia gehieneko pazienteei erreserbatutako bi gela bikoitz daude. Hala ere, solairu honen ekialdeko hegalean dauden gainerako hamabi gelak ez dira momentu honetan erabiltzen ari, ez baitituzte betetzen araudiak eskatzen dituen gutxiengo irisgarritasun baldintzak.

En la actualidad, el módulo de atención integral para personas mayores actualmente existente en la planta quinta está ubicado en la zona oeste de la planta y dispone de 20 plazas residenciales; en la zona sur se ubican las oficinas del médico, control, RAI y el botiquín; en la zona este se sitúan los almacenes y dos habitaciones dobles para los residentes más autónomos. Sin embargo, las doce habitaciones restantes existentes en el ala este de dicha planta no están en uso puesto que no cumplen las condiciones mínimas de accesibilidad exigidas por la normativa.

Beraz, Gizarte Politikako Departamentuak bosgarren solairu honen berregituraketa bat aurreikusi du, arreta integraleko modulu bakarra sortu ahal izateko. Bestalde, hirugarren solairuan jantoki orokor gisa erabiltzen den espazioa gaur egun behar dena baino handiagoa dela uste da eta, ondorioz, egokitzat jo da gorago aipatutako bosgarren solairuko bulegoak hirugarren solairuko espazio horretara mugitzea.

Por tanto, el Departamento de Políticas Sociales tiene prevista la reestructuración de esta quinta planta, creando un único módulo de atención integral. Por otro lado, se considera que el espacio destinado a comedor general de la tercera planta cuenta con una superficie mayor que las necesidades actuales, por lo que se ha considerado adecuado trasladar las oficinas de la planta quinta anteriormente citadas a dicho espacio en la planta tercera.

Behar honi erantzuteko, Gizarte Politikako Departamentuak hirugarren solairuko bulegoak prestatzeko egikaritze proiektuaren garapena Enrique Erro García (Erro Amaro Técnicos en Arquitectura e Ingeniería, S.L.P.) arkitekto teknikoaren esku utzi zuen eta proiektua 2019ko otsailean entregatu zen.

Con el objeto de dar respuesta a dicha necesidad, el Departamento de Políticas Sociales encargó la redacción del proyecto de ejecución para acondicionamiento de oficinas en la planta tercera al arquitecto técnico Enrique Erro García (Erro Amaro Técnicos en Arquitectura e Ingeniería, S.L.P.) y el mismo fue entregado en febrero de 2019.

Horregatik, orain bidezko da Egogainen aipatu obrak

Por ello, en la actualidad resulta necesario acometer



egitea.

Proiektuak bi hilabeteko exekuzio epea du, eta 123.304,32 euroko aurrekontua, gehi % 21eko BEZari dagozkion 25.893,91 euro; guztira aurrekontua 149.198,23 euro da.

Ondorioz, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 159-1a artikuluan dioenari jarraikiz, eta kontratuaren zenbatekoa ikusirik, prozedura ireki erraztuaren bidez esleituko da.

### Horregatik guztiagatik, foru diputatu honek

#### XEDATZEN DU

**Lehenengo.-** Eibarko Egogain Zentroko hirugarren solairuko ekialdeko hegalean bulegoak prestatzeko obren egikaritze proiektuaren kontratazio espedientea onartzea.

**Bigarren.-** Baimena ematea EHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI MILA EHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMOKO (149.198,23 €) gastua egiteko, 2019ko 1.0820.210.663.00.01 aurrekontu partidaren kargura, kontratua betetzeko BI HILABETEKO epean (2)

**Hirugarren.-** Hasiera ematea adjudikazio prozedurari, zeina abian jarriko den Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean argitaratuko den iragarkiarenean bitartez.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, foru agindu honen aurka **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA** aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Donostian dauden administrazioarekiko auzietako epaitegietan, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik BI HILABETEKO EPEAN. Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsoa aurkezteko honako Foru Diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daitezke."

las obras citadas en Egogain.

Dicho proyecto cuenta con un plazo de ejecución de dos meses y un presupuesto de 123.304,32 euros, más 25.893,91 euros en concepto de 21% IVA; en total, 149.198,23 euros.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 159-1a) de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y a la vista de la cuantía del contrato, éste se adjudicará por procedimiento abierto simplificado.

### En virtud de lo anterior, esta Diputada Foral

#### DISPONE

**Primero.-** Aprobar el expediente de contratación del proyecto de ejecución de las obras para el acondicionamiento de oficinas en el ala este de la tercera planta del centro Egogain de Eibar.

**Segundo.-** Autorizar un gasto de CIENTO CUARENTA Y NUEVE MIL CIENTO NOVENTA Y OCHO EUROS CON VEINTITRÉS CÉNTIMOS (149.198,23 €) con cargo a la partida presupuestaria 1.0820.210.663.00.01 de 2019 para la ejecución del contrato en un plazo de DOS MESES (2).

**Tercero.-** Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación abierto mediante el preceptivo anuncio que se publicará en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra la misma **RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO** ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía los particulares podrán interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN** ante esta diputada foral en el plazo de UN MES desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.

No se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente."



Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut    Y para que conste, extendiendo la presente certificación

Donostia,    2019 MAY: 16  
Departamentuko Idazkari Teknikoak/ La Secretaria Técnica del Departamento.

Izptua./ Fdo.: M<sup>a</sup> Socorro Equiza Equiza

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA / KONTUHARTZAILETZA ETA AUDITORETZA  
ZERBITZUA**

